

KANPO MERKATARITZAREN ESTATISTIKA (KAMEE). 2021eko ekaina

Esportazioek % 23,9ko igoera izan zuten 2021eko lehen sei hilekoan Euskal AEn, eta 12.460 milioi euro baino gehiagora iritsi ziren

2021eko ekainean, ondasunen esportazioek % 15,6ko igoera izan zuten Euskal AEn

2021eko lehen sei hilekoan, ondasunen esportazioek % 23,9ko igoera izan zuten Euskal AEn (aurreko urteko aldi berean baino 2.405 milioi euro gehiago), eta 12.466 milioi eurora iritsi ziren, Eustatek landutako datuen arabera. Nolanahi ere, zifra hori 2019ko (hots, pandemiaren aurreko urteko) lehen sei hilekoko baino txikiagoa da (13.054 milioi euro lortu ziren urte hartan).

Inportazioen metatua 9.701 milioi eurora iritsi zen, hau da, aurreko ekitaldiko aldi berean erregistratutakoa baino 1.867 milioi euro gehiago lortu ziren (% 23,8 gehiago).

Euskal AEko kanpo-merkataritzak 2.765 milioi euroko saldo positiboa izan zuen 2021eko lehen sei hilabeteetan, eta, beraz, % 128,5eko estaldura-tasa lortu zen (Euskadik inportatzen duena baino gehiago esportatzen du), EB27ko herrialde gehienetakoa baino handiagoa.

Euskal AEko ondasun kanpo-merkataritzaren bilakaera. Milaka eurotan. Urtarrila-Ekaina 2021

	ESPORTAZIOAK			INPORTAZIOAK		
	Urtarrila-Ekaina			Urtarrila-Ekaina		
	2020	2021	Δ %	2020	2021	Δ %
EUSKAL AE	10.061.383	12.466.346	23,9	7.834.270	9.701.314	23,8
PRODUKTU ENERGETIKOAK	572.315	557.685	-2,6	1.577.068	1.856.217	17,7
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	9.489.068	11.908.660	25,5	6.257.202	7.845.097	25,4
ARABA / ÁLAVA	2.903.545	3.600.926	24,0	1.695.802	2.248.847	32,6
BIZKAIA	3.892.833	4.976.722	27,8	4.382.373	5.245.847	19,7
GIPUZKOA	3.265.005	3.888.698	19,1	1.756.095	2.206.620	25,7

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

[Para más información:](#)

Lurraldeak

Adierazitako aldian, **Bizkaiko** ondasunen **esportazioak** izan ziren Euskadiko aktiboenak, 4.977 milioi euroko guztizko metatuarekin eta % 27,8ko gorakadarekin. **Araban**, igoera % 24,0ra iritsi zen (3.601 milioi euro), eta **Gipuzkoan**, berriz, % 19,1era (3.889 milioi euro).

Inportazioei dagokienez, **Bizkaiak** % 19,7ko igoera izan zuen, eta 5.246 milioi euroko baliora iritsi ziren ondasunak inportatu zituen. Haren atzetik, **Araban** inportazioak 2.249 milioi eurora iritsi ziren, % 32,6ko igoerarekin. Azkenik, **Gipuzkoak** 2.207 milioi euroko ekarpena egin zuen, eta % 25,7ko igoera-tasa izan zuen.

Produktuak

Produktu mota kontuan hartuta, *Produktu ez-energetikoek* egin diote ekarpenik handiena esportazioen gorakadari (urtetik urterako 2.420 milioi euroko gorakada), eta *produktu energetikoen* esportazioek, berriz, 14,6 milioi euroko beherakada izan dute, eta murriztu egin dute zertxobait adierazitako igoera. Bestalde, *produktu energetikoen* inportazioek % 17,7ko igoera izan dute, eta *produktu ez-energetikoenek*, berriz, % 25,4koa.

Helmuga-herrialdeak

Adierazitako aldian, Euskal AEko esportazioen xede izan diren herrialdeen sailkapenean Alemania izan da lehenengoa, esportatutako guztizkoaren % 16,8rekin. Haren atzetik, Frantzia (% 16,0), Erresuma Batua (% 6,7), Ameriketako Estatu Batuak (% 6,0) eta Belgika (% 5,4) kokatu dira. Bost herrialde horiek Euskadiko esportazioen erdiak hartu dituzte.

A 86 jarduera-adarrak

Esportazio-bolumenik handieneko jarduera-adarrei dagokienez, azpimarratu beharra dago *Siderurgiari* lotutako produktuek izan duten igoera (% 31,7koa). Izan ere, 318 milioi eurotan gaintu dituzte aurreko urteko esportazioak, eta 1.325 milioi eurora iritsi dira.

Igoera handia izan dute, halaber, *Ez-burdinazko metalen produkzioari*, *Kautxuzko produktuei* eta *Erabilera orokorreko, nekazaritza-erabilera eta beste erabilera espezifikoko batzuetako makineriari* lotutako esportazioek (% 56,1, % 25,1 eta % 16,2, hurrenez hurren). Nolanahi ere, esportazio-bolumenik handieneko adarra *Ibilgailu motordunen fabrikazioari* lotutako produktuena izan da (2.798 milioi euro eta guztizkoaren % 22,4). Izan ere, 2021eko lehen sei hilekoa amaitzean, % 28,0ko igoera erregistratu da aurreko urteko aldi berarekin alderatuta.

EAEko arantzel-partida esportatzaile nagusiak. Milaka euro (p). Metatua urtarrila - ekaina 2021

	2020	2021	2021 %	2021/2020 (%)
Guztira	10.061.383	12.466.346	100	23,9
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	879.302	1.111.178	8,9	26,4
Automobilentzako zati eta osagarriak	624.124	874.358	7,0	40,1
Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	574.998	735.674	5,9	27,9
Kautxuzko pneumatiko berriak	443.819	527.631	4,2	18,9
Petrolioaren olio finduak	518.708	469.635	3,8	-9,5
Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	221.756	310.070	2,5	39,8
Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	176.638	296.541	2,4	67,9
Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak	98.014	232.339	1,9	137,0
0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafiak eta tirak	143.467	179.391	1,4	25,0
Burdina edo altzairuzko gainerako manufaktura	128.478	171.749	1,4	33,7
Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	205.166	144.609	1,2	-29,5
Landu gabeko aluminioa	47.467	132.940	1,1	180,1
Altzairu herdoilgaitzeko barra eta profilak	97.842	127.835	1,0	30,7
Gainerako altzairu aleatuen barrak eta profilak eta zultzeko barra hutsak	84.791	127.185	1,0	50,0
Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak	80.966	123.151	1,0	52,1
Hariak, isolatutako eroale elektrikoko kableak eta zuntz optikoko kableak	73.224	118.885	1,0	62,4
Aduana-tarifan berariaz jasota ez dauden merkantziak	56.919	117.529	0,9	106,5
Ardoa, mahats freskoarena	90.717	111.439	0,9	22,8
Transmisio-ardatzak, kojinetak, engranajeak, enbrageak...	87.065	109.448	0,9	25,7
Kobreko zakarrak eta hondakinak	68.903	100.242	0,8	45,5
Ontziak eta paketatze aparatuek garbitzeko, betetzeko, ixteko, etiketatze makinak	74.384	99.132	0,8	33,3
Metal arruntzeko giltzarapo, sarraila, morroilo eta giltzak	86.179	98.907	0,8	14,8
Kobre findu gabe; fintze elektrolitikoak kobre anodoak	93.301	98.426	0,8	5,5
Koadroak, taulak eta kontrolerako edo elektrizitate-banaketarako euskarriak	75.499	98.044	0,8	29,9
Galdaketa, burdina edo altzairuzko beste manufaktura moldeatutako batzuk	65.710	93.661	0,8	42,5

(p)Behinbehineko datuak

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

Partidarik garrantzitsuenak

Zehazkiago, ikus daiteke muga-zeren 25 partida nagusietatik bitan baino ez direla izan igoera-tasa negatiboak: *Petrolio-olio finduak* (-% 9,5) eta *Hodi eta profil hutsak, soldadurarik gabeak*,

burdinazkoak edo altzairuzkoak (-% 29,5). Muga-zergeren gainerako partidetan, berriz, tasak positiboak izan dira, eta, beren esanahi eta pisu espezifikogatik, honako hauek nabarmendu dira: *10 pertsona baino gutxiagorentzako autoak* (% 26,4), *Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak* (% 27,9), *Kautxuzko pneumatiko berriak* (% 18,9) eta *Ibilgailu automatikoen zatiak eta osagarriak* (% 40,1).

EUSKAL AEKO KANPO-MERKATARITZA 2021EKO EKAINEAN

Euskal AEko ondasunen **esportazioek** % 15,6ko igoera izan zuten **2021eko ekainean**, eta azpimarratu beharra dago *Material, makina eta aparatu elektriko*en gorakada (% 12,4) eta, batez ere, *Metalek eta haien manufacturek* izan dutena (% 59,6). Beste igoera azpimarragarri batzuk honako hauetan gertatu dira: *Produktu mineralak eta energetikoak* (% 38,7) eta *Produktu kimikoak* (% 54,4). *Garraio-materialaren* esportazioek, berriz, 77,3 milioi euroko jaitsiera izan zuten (-% 13,7) 2020ko ekainarekin alderatuta. Guztira, esportazioen balioa 2.185 milioi eurora iritsi zen (1.891 milioi euro aurreko urteko hilabete berean).

Bestalde, **inportazioek** % 50,2ko igoera izan zuten 2021eko ekainean, eta 1.824 milioi euroko zenbatekora iritsi ziren. Inportazio *energetikoek* % 178,8ko igoera izan zuten, eta *ez-energetikoek*, berriz, % 34,6koa.

Euskal AEko ondasun kanpo-merkataritzaren bilakaera. Milaka eurotan. 2021 Ekaina

	ESPORTAZIOAK			INPORTAZIOAK		
	Ekaina			Ekaina		
	2020	2021	Δ %	2020	2021	Δ %
EUSKAL AE						
HILEAN GUZTIRA	1.890.628	2.185.091	15,6	1.214.734	1.824.159	50,2
PRODUKTU ENERGETIKOAK	71.321	93.210	30,7	131.476	366.531	178,8
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	1.819.307	2.091.880	15,0	1.083.258	1.457.628	34,6
URTEKO METATUA	10.061.383	12.466.346	23,9	7.834.270	9.701.314	23,8
PRODUKTU ENERGETIKOAK	572.315	557.685	-2,6	1.577.068	1.856.217	17,7
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	9.489.068	11.908.660	25,5	6.257.202	7.845.097	25,4
ARABA / ÁLAVA						
HILEAN GUZTIRA	624.785	531.081	-15,0	296.224	408.959	38,1
URTEKO METATUA	2.903.545	3.600.926	24,0	1.695.802	2.248.847	32,6
BIZKAIA						
HILEAN GUZTIRA	707.042	888.097	25,6	634.360	1.006.197	58,6
URTEKO METATUA	3.892.833	4.976.722	27,8	4.382.373	5.245.847	19,7
GIPUZKOA						
HILEAN GUZTIRA	558.801	765.913	37,1	284.150	409.003	43,9
URTEKO METATUA	3.265.005	3.888.698	19,1	1.756.095	2.206.620	25,7

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

Lurraldeak

Esportazioei dagokienez, **Gipuzkoak** izan zuen gorakadarik handiena (% 37,1), honako hauetan izandako igoerari esker: *Metalak eta haien manufacturak* (% 78,7), *Material, makina eta aparatu elektrikoak* (% 28,8) eta *Garraio-materiala* (% 39,0). **Bizkaian**, igoera % 25,6ra iritsi zen, nagusiki *Metalek eta haien manufacturek* izandako gorakadaren ondorioz (% 62,8). Izan ere, 121 milioi euroko igoerarekin, lurraldeak esportatutako guztizkoaren % 35,3ra iritsi ziren produktu horiek. **Arabian**, berriz, balantzea negatiboa izan zen: esportazioek % 15,0ko jaitsiera izan zuten *Garraio-materialaren* beherakada handiaren ondorioz (-% 37,1). Izan ere, aurreko urteko hilabete berean baino 145 milioi euro gutxiago lortu ziren.

Inportazioei dagokienez, igoerarik handiena **Bizkaian** gertatu zen (% 58,6), *Produktu mineral eta energetikoetan* izandako igoeraren ondorioz (% 175,9). Izan ere, 242 milioi euroko igoerarekin,

lurraldeak inportatutako guztizkoaren % 37,7ra iritsi ziren produktu horiek. **Gipuzkoan**, inportazioen guztizko bolumenaren igoera % 43,9ra iritsi zen, *Metalek eta haien manufakturek* izan zuten % 46,7ko igoeraren ondorioz, neurri batean. **Arabian** ere positiboa izan zen balantzea: ondasunen erosketek % 38,1eko igoera izan zuten, honako hauetan izandako gorakadari esker: *Material, makina eta aparatu elektrikoak* (% 30,0) eta *Metalak eta haien manufakturak* (% 61,7).

A 86 jarduera-adarrak

Jarduera-adarrak garrantzitsuenei lotutako esportazioei dagokienez, azpimarratu beharra dago honako hauek ekainean izan duten igoera: *Produktu siderurgikoak* (% 80,9), *Ez-burdinazko metalak* (% 100,8), *Gai metalikoak* (% 22,3) eta *Kokeriak eta petrolio-fintzea* (% 42,7). Era berean, *Ibilgailu motordunen fabrikazioari* lotutako produktuen esportazioek izan duten beherakada nabarmendu da (-% 17,6). Azken jarduera-adar horrek –lehenengoa sailkapenean– behera egin du Arabian (-% 38,2), eta aurreko urtean baino 143 milioi euro gutxiago lortu dira. Bizkaian (% 37,6) eta, neurri txikiagoan, Gipuzkoan, berriz, jarduera-adar horrek gora egin du (% 70,5).

Inportazioen kasuan, bolumenik handieneko jarduera-adarra *Erauzpen- eta petrolio-industriena* izan da (gustizkoaren % 14,3), eta, ikus daitekeenez, % 142,6ko igoera izan du. Era berean, gora egin dute *Kokeriak eta petrolio-fintzea* (% 295,8) eta *Produktu siderurgikoak* (% 69,4) adarrek.

Euskal AEko muga-zergen partida esportatzaile nagusiak. Milaka euro (p). Ekaina 2021

	2020	2021	2021 %	2021/2020 (%)
Guztira	1.890.628	2.185.091	100	15,6
Automobilentzako zati eta osagarriak	110.506	183.127	8,4	65,7
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	205.765	93.536	4,3	-54,5
Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	159.204	93.134	4,3	-41,5
Kautxuzko pneumatiko berriak	112.366	87.612	4,0	-22,0
Petrolioaren olio finduak	50.388	73.467	3,4	45,8
Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	26.673	64.617	3,0	142,3
Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak	15.007	64.262	2,9	328,2
Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	46.724	52.579	2,4	12,5
Landu gabeko aluminioa	9.173	35.623	1,6	288,3
Burdina edo altzairuzko gainerako manufakturak	25.381	35.363	1,6	39,3
0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafiak eta tirak	20.901	33.777	1,5	61,6
Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak	12.614	26.233	1,2	108,0
Gainerako altzairu aleatuen barrak eta profilak eta zulatzeko barra hutsak	15.390	25.086	1,1	63,0
Hariak, isolatutako eroale elektrikoak kableak eta zuntz optikoko kableak	9.890	23.760	1,1	140,2
Gidaria barne hamar pertsona edo gehiago eramateko ibilgailu automobilak	1.358	23.551	1,1	1.634,0
Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	29.163	23.285	1,1	-20,2
Altzairu herdoilgaitzeko barra eta profilak	18.562	23.042	1,1	24,1
Transmisio-ardatzak, kojinetak, engranajeak, enbrageak...	15.476	22.404	1,0	44,8
Aleatu gabeko burdinazko edo altzairuzko barrak, forjatuak, bihurtuak edo sekzio zirkularrekoak edo angeluzuzenekoak	4.467	21.630	1,0	384,3
Kobre findu gabe; fintze elektrolitikoak kobre anodoak	17.052	20.848	1,0	22,3
Galdaketa, burdina edo altzairuzko beste manufaktura moldeatu batzuk	10.419	20.189	0,9	93,8
Xafien bidez eraikitutako, barrak, profilak, tutuak eta fundicion-etako, burdinako edo altzairuko antzeko	20.451	19.660	0,9	-3,9
Metal arruntzeko giltzarropo, sarraila, morroilo eta giltzak	12.371	18.661	0,9	50,8
Eskuzko erremintarako tresna trukagarriak edo makina-erremintarako	21.975	18.428	0,8	-16,1
Ardoa, mahats freskoarena	14.031	18.130	0,8	29,2

(p)Behinbehineko datuak

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

Partidarik garrantzitsuenak


Zehazkiago, esportazioen urtetik urterako beherakadak gertatu dira garrantzitsuenak izan ohi diren muga-zergen partidetako hirutan: *10 pertsona baino gutxiagorentzako autoak* (-% 54,5), *Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak* (-% 41,5) eta *Kautxuzko pneumatiko berriak* (-% 22,0). Honako hauetan, berriz, igoerak izan dira: *Ibilgailu automobilen zatiak eta osagarriak* (% 65,7), *Petrolio-olio finduak* (% 45,8), *Aleatu gabeko burdinazko edo altzairuzko profilak* (% 142,3), *Trenbide edo antzekoetarako ibilgailuen zatiak* (% 328,2) eta *10 pertsona edo gehiago (gidaria barne) garraiatzeko ibilgailu automobilak* (% 1.634,0).

Helmuga-bezeroak

Ekainean, Euskal AEko bezero nagusiak bost herrialde izan dira: Frantzia, Alemania, Erresuma Batua, Ameriketako Estatu Batuak eta Belgika. Izan ere, herrialde horiek Euskal AEko esportazio guztien % 49,8 hartu dituzte. Herrialde horietako hiru EB27koak dira (entitate horrek esportazioen % 65,8 hartu ditu).

Euskal AEko kanpo-merkataritzaren bilakaera

Miloi Euro



Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

Informazio gehiagorako:

[Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62